

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2022/2023 ikasturtea

HAUR HEZKUNTZAKO HAURREN BABESA: prebentziorako, detekziorako eta esku hartzerako webgunea

Egilea: Iraide Etxebarria Ruiz de Aguirre

Zuzendaria: Naia Eguskiza Sanchez

Leioan, 2023ko ekainaren 1ean

AURKIBIDEA

1. Sarrera eta lanaren justifikazioa.....	1
2. Marko teorikoa.....	2
2.1. Haurren babesa, indarkeria motak eta arrisku faktoreak	2
2.2. Haurren babesgabetasunaren prebentzioa Haur Hezkuntzan	9
2.3. Haurren babesgabetasunaren detekzioa Haur Hezkuntzan	11
2.4. Zelan esku-hartu Haur Hezkuntzan	12
3. Lanaren helburuak.....	13
4. Metodologia	13
4.1. Datuak jasotzeko metodologia	14
4.1.1. Adituei elkarrizketak	14
4.1.2. Informazio akademikoa eta iturri bibliografikoak	15
4.1.3. Testigantzak	15
4.2. Datuak prozesatzeko metodologia.....	16
4.2.1. Webgunearen eraikuntza	16
5. Emaidza.....	17
5.1. Adituei elkarrizketak	17
5.2. Informazio akademikoa eta iturri bibliografikoak.....	17
5.3. Testigantzak	19
5.4. Webgunea.....	19
6. Ondorioak	21
7. Erreferentzia bibliografikoak.....	24
8. Etika profesionala	26
9. Eranskinak	27
9.1. Eranskina. Elkarrizketak egiteko galderak.....	27
9.2. Eranskina. Elkarrizketen transkripzioak	28
9.3. Eranskina. Galdetegiaren transkripzioak	38

HAUR HEZKUNTZAKO HAURREN BABESA: prebentziorako, detekziorako eta esku hartzerako webgunea

Iraide Etxebarria Ruiz de Aguirre

UPV/EHU

Haurren ongizatea gizarte eragile guztiek bermatu beharreko baldintza da, umeen giza eskubidea delako. Horregatik, lan honen helburua, Haur Hezkuntzako etapan haurren babesgabetasuna jasaten ari diren edo jaso duten ikasleei laguntzeko webgune bat sortzea irakasleentzako eta familientzako orientabideak eta materialak eskaintzea da. Helburua erdiesteko, aditu desberdini elkarrizketak egin zaizkie, hezkuntzako profesional desberdinen testigantzak jaso dira eta iturri bibliografiko ezberdinak arakatu dira. Azkenik, informazio guztia eta orientabide eta baliabide ezberdinak erabilita sortu den webgunean argitaratu dira haurren babesa gizarte mailan beharrezkoa dela ikustarazteko.

Haurra, ongizatea, Haur Hezkuntza, babesa, babesgabetasuna, webgunea

El bienestar de los niños y niñas es una condición que todos los agentes sociales deben garantizar, ya que es un derecho humano de los niños y niñas. Por ello, el objetivo de este trabajo es crear una página web de apoyo al alumnado que está sufriendo o ha recibido desprotección infantil en la etapa de Educación Infantil para ofrecer orientaciones y materiales para el profesorado y las familias. Para la consecución del objetivo se han realizado entrevistas a diferentes expertas, se han recogido testimonios de diferentes profesionales de la educación y se han analizado diferentes fuentes bibliográficas. Por último, se ha publicado en la página web toda la información y diferentes orientaciones y recursos para visibilizar la necesidad de la protección a la infancia a nivel social.

Niños y niñas, bienestar, Educación Infantil, protección, desprotección, pagina web

The well-being of children is a condition that all social agents must ensure, as it is a human right of children. Therefore, the aim of this work is to create a website to support pupils who are suffering or have suffered from child protection in the Early Childhood Education stage in order to offer guidance and materials for teachers and families. In order to achieve this objective, interviews have been conducted with different experts, testimonies have been collected from different education professionals and different bibliographical sources have been analysed. Finally, all the information and different guidelines and resources have been published on the website in order to make the need for child protection visible at a social level.

Children, well-being, Early Childhood Education, protection, defencelessness, website

1. Sarrera eta lanaren justifikazioa

Hezkuntza-sistemak aurrerapen izugarriak izan dituela ukaezina den arren, oraindik zenbait esparrutan gehiago sakontzea eta lanean jarraitzea beharrezkoa dela argi dago. Gizartean eta bizi garen ingurunean, haurren tratu txarrei buruz hitz egitea arrotz egiten da, gure ingurunetik urrun dagoela iruditzen zaigu, baina oraindik ere badira haurtzaroa erabat babesik gabe sufritzen duten haurrak. Horregatik dira, gaur egun, Save the Children bezalako GKEek haurren eskubideen alde borrokatzen duten sareak, osasuntsu hazi daitezten, ikasteko aukera izan dezaten, indarkeriatik babestuta egoteko eta haien beharrei entzuten dutenak. Haurren tratu txarrak edo babesgabetasuna, gainerako tratu txar motak bezala, legeak zigortutako delitua da, eta betebeharrak legal eta morala du. Nahiz eta egia den gure inguru hurbileko gizarteak asko aurreratu duela, asko dira egunero kolpeak, umiliazioak, helduek egindako mespretxuak, irainak etab. jasaten dituzten haurrak. Gainera, ez da ahaztu behar tratu txarren kontzeptuak ez duela soilik tratu txar fisikoak aipatzen, haratago doa. Azken datuen arabera, lau haurretatik batek indarkeria jasaten du (Save the children, 2019). Hori dela eta egoera horietan egon daitezkeen haurren babesa areagotzeko asmoz eta babesaren garrantziaz ohartarazteko helburuarekin egin da lan hau.

UNESCOk esaten duen bezala, haurren ongizatea gizarte eragile guztiek bermatu beharreko baldintza da, umeen giza eskubidea delako (UNESCO, 1995). Hots, hezkuntza-sisteman honen inguruko gabezia zegoela ikusita ekarpen xume eta txikia egiteko asmoarekin haurren babesa sustatzeko, irakasle, familia eta ikasleei laguntzeko asmoz gai hau aukeratu da Gradu Amaierako Lan honetan egiteko.

Garapen Iraunkorrerako Helburuak kontuan izanda eta lan honen bidez erdietsi nahi diren helburuak kontuan hartuta, lan honek Garapen Iraunkorrerako Helburu birekin egiten du bat zuzen-zuzenean: hirugarrenarekin “Osasuna eta ongizatearekin” eta laugarrenarekin, “Kalitatezko hezkuntzarekin” (Nazio Batuen Erakundea, 2015). Historian lehen aldiz munduaren arazo nagusiei aurre egitea planteatu da modu global batean, hortaz, lan honen bidez, osasunera eta ongizatera hurbildu nahi dugu fokua kalitatezko hezkuntzan jarrita. Azken finean hori baita eskolaren helbururik behinenena. Horrenbestez, lan honen helburu nagusia da:

Haur Hezkuntzako etapan haurren babesgabetasuna jasaten ari diren edo jaso duten ikasleei laguntzeko webgune bat sortzea irakasleentzako eta familientzako orientabideak eta materialak eskaintzeko.

Lana sei ataletan adarkatzen da. Sarrera honen ostean, marko teorikoa eta kontzeptuala garatuko da. Hirugarren atalean lanaren helburuak zeintzuk diren argitaratuko da, alde batetik, helburu orokorra eta bestetik, helburu zehatzak. Jarraian, laugarren atalean, metodologia aurkezten da, alde batetik datuak jasotzeko jarraitu den metodologia azalduko da eta bestetik, datuak aztertzekoa. Hurrengoan, bosgarrenean, ikerketaren emaitzak aurkeztuko dira. Azkenik, seigarren atalean ondorioak aurkezten dira, lanari amaiera emateko.

2. Marko teorikoa

Sarreraren osteko atal honetan, marko teorikoa garatuko da. Bertan, iturri bibliografiko ezberdinak kontsultatu ostean garatutako esparru teorikoa eta kontzeptuala azalduko da. Beraz, hitz hauen atzetik lau azpiataletan adarkatzen den marko teorikoa azaltzen da; lehenengo azpiatalean haurren babesza zer den, indarkeria motak eta arrisku faktoreak zeintzuk diren azaltzen dira. Bigarren azpiatalean haurren babesgabetasunerako prebentzioa Haur Hezkuntzan zehazten da. Jarraian, hirugarren azpiatalean, haurren babesgabetasunerako detekzioa Haur Hezkuntzan adierazten da. Eta azkenik, laugarren azpiatalean, zelan esku-hartu Haur Hezkuntzan azalduko da.

2.1. Haurren babesza, indarkeria motak eta arrisku faktoreak

Haurren babesaz hitz egiten dugunean, espazio seguru eta babeslea sortzeaz ari gara, haurren garapen osoa ziurtatuko duena (Horno, 2022). Haurrak garapen osoa garatzen duela ziurtatzeko, ingurune segurua indarkeriarik gabeko gunea dela ziurtatu behar da non, jarduerak eta harremanak tratatu oneko giroan garatzen diren. Horretarako, haurren eta nerabeen eskubideak uneoro errespetatu eta haien garapen integrala (fisikoa, psikologikoa eta soziala) babesten duen giroa sustatu behar izango da. Ingurune seguruak haur edo nerabe bat bizi den eremu guztietan bermatu behar dira, hala nola familian, hezkuntza formaleko zentroetan, osasun-arretako zentroetan edo hezkuntza ez-formaleko

eremuetan, besteak beste, kirolean, aisialdian etab. (Horno, 2022; Gomez, Adroher, Berastegui & Halty, 2022).

Haurrentzat indarkeriarik gabeko ingurune seguruak sortzea, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean integratzeko Lege Organikoan jasotako lehentasuna da (Lege Organikoa, 2021). Lege hau 2021ean argitaratu zen hurrek osotasun fisiko, psikiko, psikologiko eta moralarekiko dituzten oinarrizko eskubideak bermatzeko edozein indarkeria motaren aurrean. Legea, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriarean aurrean Babeste Lege Organiko bezala ezagutzen da (aurrerantzean, LOPIVI, gaztelaniako sigletatik eratorrita). Haurren nortasunaren garapen askea eta babes integraleko neurriak ziurtatzeko, besteak beste, ezinbestekoak dira sentibilizazioa, prebentzioa, detekzio goiztiarra eta kaltea konpontzea bizitza garatzen den eremu guztietan (Gomez, Adroher, Berastegui & Halty, 2022). Hain zuzen ere, hurrengo azpiataletan garatuko dira prebentzioa (ikusi 2.2. azpiatala) eta detekzio goiztiarra (ikusi 2.3. azpiatala).

Hortaz, babes-ingurunea lantzen denean oso garrantzitsua da beldurrik ez sortzea eta sendotasun emozionala garatzea. Honekin lortu nahi dena da, haurrak gogor egitea, bizitzan aurre egin beharko dieten zailtasunei aurre egin ahal izateko (Goleman, 1996). Ezin daiteke bermatu inoiz ez dutenik indarkeria kasurik edukiko edo ikusiko, baina espazio seguruak sortzeko lan egin behar da ikastetxetik, eta kasurako, Haur Hezkuntzako ikasgeletatik. Horretarako, baliabideak eta errekurtsoak lan daitezke hurrekin batera. Babestea ez da indarkeria desagerraraztea. Babestea da babesguneak eta ingurune babesleak eta tratu onekoak sortzea, haurraren erabateko garapena ahalbidetzeko (Horno, 2022).

Hurrek, Haur Hezkuntzako etapan batik bat, babesa behar dute, beste pertsona batzuen laguntza behar dute euren premiak asetzeko, bizirik irauteko eta ongizaterako. Haurren babesle nagusiak gurasoak dira, euren oinarrizko premiak betetzeko baliabide ohikoena izanik (UNICEF, 2020). Baina ezinezkoa da gurasoek kasu ematea zuzenean seme-alaben beharrez guztiei: zainketa fisiko eta medikoak, estimulazio kognitiboa, gainbegiratze lana etab. Horietarako, hainbat sostengu sistema izaten dituzte, batzuk ez-formalak (esate baterako, ahaideak, lagunak) eta beste batzuk formalak (esate baterako, hezkuntza, osasun nahiz gizarte zerbitzuak). Nahiz eta haurren babes eta ongizatearen inguruko erantzule nagusiak gurasoak izan, helburu hori erdiesteko nahitaezkoa da gainerako "babesle"

guztiek aktiboki esku hartzea eta denek elkarrekin jardutea (Arruabarrena, 2007; Bizkaiko Foru Aldundia, 2019; Romeo, 2021).

Alabaina, zenbait faktorek eragin dezakete babeserako guneak toki kaltegarri bihurtzea haurrarentzat. Ondorioz, garapen normala galaraz dakioke haurrari. Hala gertatzen denean, umeen babesgabezia edo tratu txarrak daudela esan ohi da (Arruabarrena, 2007). Egoera horien aurrean, profesionalak eta oro har herritarrek haurren babesean erantzukizuna ere badute, eta elkarrekin lan egin beharko dute, bakoitzak bere eskumen eta ahalbideen esparruan eragingo du, eraso horietatik babesteko, eta beraien eskubideak, ongizatea eta oinarrizko premiak betetzen direla zaintzeko (Bizkaiko Foru Aldundia, 2005).

Adingabeen babesaren inguruan indarrean dagoen legedian ezarrita dagoenez (LOPIVI), haurrari eragiten dion edozein arrisku egoera eta babesgabezia prebenitu eta horietan esku hartu beharra dute nahitaez herri administrazio eskudunek, haurren garapen integrala bermatzeko eta familia bizitza sustatzeko xedearekin (Bizkaiko Foru Aldundia, 2019).

Gizarte osoaren erantzukizuna da, beraz, haurrak babestea, babesik gabeko egoerei aurrea hartzea eta egoera horietan esku hartzea. Ikastetxeak eta bertan lan egiten duten profesionalak etika eta lege aldetik beharturik daude egoera horietan guztietan esku hartzera, haurra babesteko (Arruabarrena, 2007). Gaur egungo legeriaren arabera, haur bat babesik gabeko egoera jasaten ari dela susmatuz gero edo antzemanaz gero, irakasleak Gizarte Zerbitzuei horren berri ematera beharturik daude. Kode Zibila eta Prozedura Zibileko Legea hein batean aldatzen dituen Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13. artikulua (96.01.17ko EAO) ondoko hau ezartzen du:

1. Adingabe bat arriskuan edo babesik gabe dagoela antzematen duten pertsona eta agintari guztiek, batez ere lanbidea edo betekizunak alor horretan dituztenek, aipatu egoera jakinaraziko diete agintaritzari edo haren agente hurbilenei, adingabeari berehala behar duen laguntza emateaz gain.
2. Eskolatzea nahitaezkoa den garaian adingabe bat, justifikaziorik gabe, eskolatu gabe dagoela edo askotan ikastetxera ez dela joaten dakiten pertsonak edo agintariek, agintari publiko eskumendunei jakinaraziko diete. Horiek adingabea eskolatzeko behar diren neurriak hartuko dituzte.

3. Haien lanbidearengatik edo betekizunengatik kasuaz jabetzen diren pertsona edo agintariek zuhurtasunez jokatuko dute, adingabearen bizimoduan beharrezkoa ez den interferentziarik sartu gabe.

Eskolan ari diren profesionalek balizko babesgabetasun egoeren adierazleez ohartzeko hainbat bide dituzte: haurrek eskolan duten jokabideari erreparatzea, gisa honetako egoerek uzten dituzten seinale fisikoak ikustea, edota, gurasoekin egunerokotasunean izandako harremanen bitartez, familien dinamiketan arreta jartzea (ikus 2.2 azpiatala) (Arruabarrena, 2007).


Babesgabetasun egoeren seinale fisiko batzuk oso erraz ikus daitezke. Dena dela, babesgabetasun egoera gehienetan, haurrek ez dute agerian seinale fisikorik izaten (Losada & Porto, 2019). Maizenik ageri diren adierazleak jokabideari dagozkienak izaten dira, bestelakorik gabe edo adierazle fisikoekin batera. Irakasleak inor baino leku hobean daude, haurren jokabidearen adierazle horiek identifikatzeko. Izan ere, “behatzaile entrenatuak” dira, haurrek garapenaren urratsetan agertzen dituzten jokabideak sailkatu eta ezagutzen dituztenak, eta, beraz, garapenaren araberako sailkapen horretatik kanpo daudenak identifikatzeko gaitasuna dute (Arruabarrena, 2007).

Eskolako langileen jokabidea funtsezkoa da haurren babesgabetasun egoerak prebenitu, identifikatu, jakinarazi eta behar bezala esku hartzeko garaian. Gizarte Zerbitzuetara iristen diren kasuetako ehuneko handia ikastetxeek jakinarazia izaten da. Datu horrek, irakasleen eginkizunaren garrantziaz ohartarazteaz gain, arazo honetan haietako asko sakonki inplikaturik daudela erakusten du, izan ere, eskolatik arazo honi aurrea hartu dakioke, bertako langileek prestakuntza berezia dutelako, haurrekin denbora asko ematen dutelako eta guraso eta familiekin harreman berezia eduki dezaketelako. Hala ere, badira eskolan diharduten profesional ugari oraindik ez dakitenak zein diren mota honetako egoeren adierazleak, ezta nola esku hartu behar den ere. Dударik gabe, arrazoi askorengatik, irakasleek oso eginkizun garrantzitsua dute arazo honi aurrea hartu eta ekiteko. Lehenik eta behin, haurrekin duten harremana hurbila eta egunerokoagatik. Bigarrenik, egoera hauek gertatzen ari direla susmorik badute, legez beharturik daudelako Gizarte Zerbitzuetara joatera. Eta hirugarrenik, eskolako profesionalak leku ezin hobean daudelako haurrei eta haien familiei laguntzeko (Arruabarrena, 2007).

Haurra babesik gabe (haurtzat 18 urtetik beherako guztiak hartuz) dagoela esaten da, baldin eta bete gabeko oinarrizko beharren bat badu, kalte fisiko edo emozional larria

jasaten badu, edo kalte hori jasateko arriskuan badago, bere guraso edo zaintzaileen jokabidearen ondorioz. Guraso edo zaintzaileen jokabide hori, haurren baitan kalte nabarmena eragiten duen edo eragin dezakeena, eginez gerta daiteke (adibidez, eraso fisiko edo hitzekoen bitartez, edo sexu eraso bidez) edo omisioz (adibidez, zainketa medikorik ez emanez, ez arduratuz, etab.) (Arruabarrena, 2007).

Indarkeria honela definitzen da: adingabeei eragiten dien egoera bat da, desberdintasun harremanetan botere-abusu moduan, eta kalte fisiko eta intentzionalen forma esplizituenak zein ez-fisikoak (tratu txar psikologikoak) eta/edo ez-intentzionalak (deskuidua) jasotzen ditu (Eusko Jaurlaritza, 2020; Gomez, Adroher, Berastegui & Halty, 2022). Horrela, 1. irudiko indarkeria motak bereizten dira, indarkeria horien zehaztasunak irudiaren ostean azalduko dira.



1. irudia. Indarkeria moten sailkapena.

(1) Indarkeria fisikoa, kalte fisikoa eragiten duena da, besteak beste, kolpeak, ebakiak, erredurak, mutilazioak, astinaldiak, jipoiak, pozoitzea, estupefazianteak ematea edo erraztea eta itotzea barne hartzen duten adierazpenekin (Bizkaiko Foru Aldundia, 2005; Arruabarrena, 2007; Eusko Jaurlaritza, 2020; Romeo & Horno, 2022).


(2) Indarkeria emozionala, haurren ongizate emozionalari eragiten dion hitzeko eraso modu psikologikoa da, hala nola mehatxuak, irainak, umiliazioak, barregarrikeriak, xantaia edo manipulazioa, eta taldearen isolamendua edo esklusioa (Bizkaiko Foru Aldundia, 2005; Arruabarrena, 2007; Eusko Jaurlaritza, 2020; Romeo & Horno, 2022).

(3) Arduragabekeria, haurren beharrian fisiko, psikologiko, afektibo, nutrizional eta babesgarrien arreta falta gisa identifikatzen da, haien garapenean hainbat kalte eragiten dituen. Arduragabekeria gisa egiten dira adingabe baten hezkuntza-eremuari eragiten dioten deskuidu fisikoak, emozionalak, osasun fisiko edo mentalean ondorioak dituztenak, abandonuak edo deskuiduak (Bizkaiko Foru Aldundia, 2005; Arruabarrena, 2007; Eusko Jaurlaritza, 2020; Romeo & Horno, 2022).

(4) Indarkeria sexuala, adingabe baten eta pertsona heldu baten arteko kontaktu eta interakzio gisa ulertzen da, azken horrek adingabea bera, adingabea edo hirugarren pertsona bat sexualki estimulatzeko erabiltzen duenean (Bizkaiko Foru Aldundia, 2005; Arruabarrena, 2007; Eusko Jaurlaritzza, 2020; Romeo & Horno, 2022).

Gaiari buruz egin diren ikerketetan, eragile edo gorabehera batzuk identifikatu dira, gisa honetako arazoak maiz samar jasan ohi dituzten familietan agertzen direnak, hain zuzen ere, arrisku faktoreak deritzenak. Halako ezaugarriak dituzten familia eta inguruneetan bizi diren haurrek babesik gabe geratzeko arrisku handiagoa dute (Mouesca, 2015).

2. irudian haurren babesgabetasuna agertzearekin lotutako arrisku faktoreak hiru arlotan biltzen dira. Arrisku faktore horien zehaztasunak irudiaren ostean azalduko dira.



2. irudia. Arrisku faktoreen sailkapena.

(1.1.) Nortasunaren eta ongizate psikologikoaren ezaugarriak. Problema emozionalak eta ondoez psikologikoaren sintomak izaten dituzte. Horien artean honako hauek daude: autoestimu txikia, depresioa, antsietatea, etab. (Arruabarrena, 2007; Mouesca, 2015).

(1.2.) Babesgabetasun historia haurtzaroan. Babesgabetasun egoerak jasan dituzten gurasoek, guraso eredu egokirik izan ez dutenek edo haurtzaroan oinarritzko premiak ase ez dituztenek, beren seme-alabez modu egokian arduratu eta haien beharrei erantzuteko arazoak izan ahal dituzte. Ziklo hori beren seme-alabekin ere errepika daiteke, indarkeria normalizat edo justifikagarritzat har baitezakete (Arruabarrena, 2007; Mouesca, 2015).

(1.3.) Toxikomaniak eta alkoholismoa. Droga edo alkohol gehiegi hartzeak eragotzi egiten ditu buruaren funtzionamendua, ezagueraren ahalmena, inibizioak eta haurra babesteko pertsonak daukan ahalmena. Arazo horiek jasaten dituzten gurasoak, ondorioz, beharbada ez dira seme-alabez arduratuko, dirua drogetan edo alkoholean gasta dezakete, familiaren beharretan erabili ordez, edo legez kanpoko jardueretan murgil daitezke eta

haurra arriskuan jarri. Droga edo alkohol gehiegi hartzeak jaio aurretik ere kalte egin diezaioke haurrari, haurdunaldian (Arruabarrena, 2007; Mouesca, 2015).

(1.4.) Jarrerak eta ezagupenak. Haurren garapenari buruzko ezagupenik ez izateak, ondorioz, gurasoek haurrari buruz errealak ez diren aurreikuspenak edukitzea ekar dezake. Haurrak aurreikuspen horiek betetzen ez baditu, arrazoirik gabeko zigorra jaso dezake. Beste guraso batzuk frustraturik senti daitezke, ezin badute beren seme-alaben jokabidea kontrolatu eta bideratu, eta, hori dela kausa, hitzez edo fisikoki eraso egin diezaiekete (Arruabarrena, 2007; Mouesca, 2015).

(1.5.) Adina. Gurasoak gazteegiak direnean, haurrak babesik gabe geratzeko arriskua egon daitekeela ikusi da, bereziki horrekin batera arazo ekonomikoak, laguntza falta eta estres maila handia ere suertatzen badira (Arruabarrena, 2007; Mouesca, 2015).

(2.1.) Familia egitura. Egindako ikerketek aditzera ematen dute guraso bakarreko familiek -jeneralean ama buru izanik- guraso bikoek baino arazo ekonomiko eta estres gehiagori egin behar izaten diotela aurre eta kanpoko laguntza txikiagoa izaten dutela (Arruabarrena, 2007; Mouesca, 2015).

(2.2.) Bikotekideen arteko gatazka edo etxeko indarkeria. Etxeko indarkeria gertatzen den familia askotan aldi berean haurrak babesik gabe egoten dira. Indarkeria den familietan bizi diren haurrak indarkeria horren lekuko izan daitezke, beraiek eraso fisikoak edo hitzezkoak jasan ditzakete, edo gurasoak ez dira haietaz arduratuko, beren borroketan murgilduta egoteagatik (Arruabarrena, 2007; Mouesca, 2015).

(2.3.) Estresa. Estres mailak familiaren funtzionamenduarekin eta haurrak babesik gabe geratzeko arriskuarekin zerikusi handia du (Arruabarrena, 2007; Mouesca, 2015).

(2.4.) Gurasoen eta seme-alaben arteko harremana. Guraso tratu txar emaile eta axolagabeek oso gutxitan aitortu edo indartzen dituzte seme-alaben jokabide positiboak; negatiboak, aldiz, berehala ohartzen dira (Arruabarrena, 2007; Mouesca, 2015).

(3.1.) Pobrezia eta langabezia. Arazo ekonomiko edo lan arlokoak dituzten guraso gehienak modu desegokian arduratzen dira beren seme-alabek (Arruabarrena, 2007; Mouesca, 2015).

(3.2.) Gizartean bakarturik eta laguntzarik gabe. Gizartean bakarturik eta laguntzarik gabe egonez gero, gurasoen ardurak modu egokian betetzea oso eginkizun zaila izan daiteke, guraso lana betetzeko bestelako eredu alternatiborik ez da izaten eta guraso horiek, haurrekin izan beharreko jokabideari dagokionez, ez daude bestela leudekeen bezain “beharturik” gizarteko arau estandarrak betetzera (Arruabarrena, 2007; Mouesca, 2015).

(3.3.) Indarkeria ingurunean. Indarkeria nagusi den auzo batean edo indarkeria ohikoa den edo arazoak konpontzeko nahiz zerbait lortzeko erabiltzen den kultur giro batean bizitzea arrisku faktorea da, bertan haurrak babesgabetasuna jasan dezan. Egoera horiek eragin negatiboa dute, hala giro horretan bizi diren gurasoentzat nola lekuko diren haurrentzat, beraiek ere indarkeria erabiltzen baitute arazoak konpontzeko estrategia gisa (Arruabarrena, 2007; Mouesca, 2015).


2.2. Haurren babesgabetasunaren prebentzioa Haur Hezkuntzan

Haurren aurkako indarkeria desagerrarazteko modurik onena indarkeria horren prebentzian modu aktiboan lan egitea da. Indarkeria haurren bizitzatik guztiz ezabatzea ezinezkoa izan daiteke, baina hezkuntza eragileen esku dago ahalik eta gehien minimizatzea (Gomez, Adroher, Berastegui & Halty, 2022). Eskoletatik, hurrengan eta helduengan gaitasunak sortzea izango da lana, hura detektatzeko eta haren aurka goiz egiteko, protagonistak ahalduntzea haurrak ahalik eta hobekien laguntzeko eta indarkeria onartzen ez duten komunitateak eta gizarteak eraikitzen laguntzeko. Horrela, 3. irudiko haurren aurkako indarkeriaren prebentzioa hiru zutabetan sailkatzen da.

Eskola gisa lan egitea	Erreferentziatzko helduekin lan egitea	Haurrekin lan egitea
<ul style="list-style-type: none"> • Planak edo tresnak inguruarekiko seguruak sortzea. • Jarduera seguruak antolatzea. • Indarkeriari aurre egiteko protokoloak sortzea. • Espazioa seguruak planifikatzea. • Planak eta jokabideak ebaluatzea. • Tratu oneko kultura zabaltzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Eskolarekin lankidetzan aritzeko pertsona egokienak hautatzea. • Profesionalak eta helduak tratu onean formatzea. • Pertsonen arteko harremanak erreferentziatzkoak izaten zaintzea. • Giroa sortzea, tratu onaren kultura eskola osoan egotea. • Beste testuinguruetako erreferentziatzko helduei laguntzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Beren burua babesteko modu aktiboan parte hartzea haurrak motibatu. • Indarkeria-gertakariak ezagutzen, erantzuten, komunikatzen eta horien aurrean konfiantza izaten ikasteko aukerak eskaintzea. • Haurrekin lan egitea inguru seguruak sortzen.

3. irudia. Prebentzioaren sailkapena (Gomez, Adroher, Berastegui & Halty, 2022).

Ingurune seguru bat sortzeko lehen urratsa espazio ireki eta parte-hartzaileak sortzea da, non hurrek bere burua babesten ikas dezaketen. Indarkeriaren aurka babesteko modurik eraginkorrenetako bat autobabesa da, haurrari bizitza osoan eta testuinguru guztietan laguntzen diolako. Autobabeserako, haurrak, baliabideak garatu behar ditu ezagutzeko, erantzuteko, indarkeria komunikatzeko eta konfiantza izateko, bere baitan eta beste batzuegan, 4. irudian ikusten den bezala (Gomez, Adroher, Berastegui & Halty, 2022).



4. irudia. Autobabesarako baliabideak.

(1) Garrantzitsua da hurrei helduengandik datozen indarkeria-egoerak ezagutzen laguntzea. Zenbait testuingurutan eta harremanetan soilik egokiak diren jokabideak bereizteko, eta kalte egiten duten jokabideak, inola ere onartu ezin direnak eta onartu behar ez direnak. Hurrek zer balio duen eta zerk ez duen balio (zer den egokia eta zer ez) dakitenean, errazagoa da harreman pertsonaletan beren burua eta besteena babesteko moduko jarrerak hartzea (Martínez & Escorial, 2021; Gomez, Adroher, Berastegui & Halty, 2022).

(2) Aitortzeak indarkeriaren aurrean behar bezala erreakzionatzeko eta erantzuteko aukera ematen du. Indarkeria egoerez hitz egin eta lan egin behar da, ahalik eta lasterren baztertzeko, saihesteko edo sortzen dituzten kalteak murrizteko (Martínez & Escorial, 2021; Gomez, Adroher, Berastegui & Halty, 2022).

(3) Hurrei adierazi behar zaie garrantzitsua dela komunikatzea, izan ere, konfiantzazko pertsona heldu batekin lehenbailehen hitz egitea pairatzen edo ikusten egon daitezkeen indarkeria-egoerei buruz. Horregatik, garrantzitsua da hurrei indarkeriaz hitz egiteko baimena ematea eta indarkeriaz hitz egiteko hizkuntza eskaintzea. Gainera, garrantzitsua da gauza intimoak eta sekretuak bereizten laguntzea, sekretu arriskutsuak edo kaltegarriak diren detektatzeko (Martínez & Escorial, 2021; Gomez, Adroher, Berastegui & Halty, 2022).

(4) Pertsona helduekin konfiantza izatea eta segurtasuna eskaintzea erabakigarria da indarkeria detektatzeko, haren aurrean erreakzionatzeko eta gertatzen denean laguntza

eskatzeko. Ingurune seguruak sortzeak esan nahi du haurrak gure eskolan konfiantzazko giroa eta pertsona batzuk aurki ditzakeela, laguntza eskainiko diotenak (Martínez & Escorial, 2021; Gomez, Adroher, Berastegui & Halty, 2022).

Hurrekin egiten den lanaz gain, prebentzio on bat eskolaren barruan hurrekin elkarreragiten duten helduen hautaketan, prestakuntzan eta sentsibilizazioan oinarritzen da (Martínez & Escorial, 2021). Halaber, partekatzen dugun denboraz eta hurrek gurekin egiten dituzten jardueraz gain, mugitzen diren eta erlazionatzen diren inguruneak seguruak izan daitezen lagundu dezakegu. Horretarako, familiekin lan egitea eta ezagunak diren beste harreman-ingurune batzuekin koordinatzea eta hauek sentsibilizatzea izango da gakoa (Gomez, Adroher, Berastegui & Halty, 2022).

Eskola guztiek, indarkeriaren aurka jarduteko protokoloan, prebentzio-plan bat izan behar dute. Protokoloan azaldu behar da, nola lagunduko duten eskolako profesional guztiek, harremanetan, jardueretan eta espazioen kudeaketan indarkeriaren prebentzioa egiteko eta ingurune seguruak sortzeko. Horretarako, prebentzio-plan honen tresna nagusiak jokabide-kodea eta arrisku-mapak dira. Jokabide-kode on bat egiteko, eskolak gogoeta egin behar du hurrekin zer harreman mota garatu nahi duen, eta, beraz, zer jokabide sustatu, zuzendu eta debekatu nahi dituen. Gainera, murriztu eta zuzendu nahi dituen portaerak ere, beren profesionalen artean sustatu egingo dira (Gomez, Adroher, Berastegui & Halty, 2022).

Arriskuen mapa tresna bat da eskolan egiten diren jardueretan ager litezkeen indarkeria-arriskuak eta tratu desagokia identifikatzeko eta babes-plan bat sortzeko (Gomez, Adroher, Berastegui & Halty, 2022).

2.3. Haurren babesgabetasunaren detekzioa Haur Hezkuntzan

Indarkeria-egoerak prebenitzen saiatzeaz gain, ahalik eta lasterren detektatzeko prest egon behar dute Haur Hezkuntzako irakasleek, jardun ahal izateko eta haien ondorioak minimizatzeko. Ziurrenik errazagoa izango da eskolako jardueretan gerta daitezkeen indarkeriazko egoerak antzematea, bertan, lagunduz eta gainbegiraturaz, baina hurrekin dituzten harremanak kanpoan jasan ditzaketen indarkeriazko ekintzak ezagutzeko eta horietan esku hartzeko aukera eman dezakete. Haur bat indarkeriaren biktima dela antzeman ahal izateko, garrantzitsua da adi egotea, baina baita ere jakitea zer adierazleri

erreparatu behar zaion, zein diren haur bat egoera batean egon daitekeela adierazten duten adierazleak, etab. (Oderiz, 2020; Gomez, Adroher, Berastegui & Halty, 2022).

Adi egoteak esan nahi du erne egotea, hau da, kontuan izatea egoera horiek gerta daitezkeela, eta testuinguratzen eta interpretatzen jakin behar da (Macías de la Vega, 2017). Kontua ez da denbora guztian haurrak susmoz beteta begira egotea, baina begiratu egin behar da, eta zer den jakin, detektatzen lagun dezaketen seinaleak edo portaerak daudelako. Adi egotearen barruan sartu behar dira: eskuragarri eta presente egotea, konfiantzazko espazioak eta harremanak sortzea, sentikorrak izatea, adierazleak ezagutzea eta gogoan izatea, etab. Haurrenganako indarkeria detektatzeko, hiru bide nagusi daude: ikustea, entzutea eta behatzea. Haur baten aurkako indarkeria-egoera bat detektatzen denean, dela irakasleak ikusi duelako, dela entzun duelako, dela susmatzen dituen adierazleak antzeman dituelako, hiru prozesu daude: komunikatu, babestu eta erregistratu (Oderiz, 2020; Gomez, Adroher, Berastegui & Halty, 2022). Komunikatzeak esan nahi du, indarkeria egoera bat detektatzen denean, eskolako ongizatearen eta babesaren koordinatzaileari jakinarazi behar zaiola, ondoren, egin beharreko urratsak erabaki ditzan. Babestea esan nahi du, haurra berehala babestea eta behar duen laguntza eskaintzea, beharrezko arreta eskainiz. Eta erregistratzea esan nahi du, detektatu eta ahalik eta azkarren, ikusi, entzun eta behatu dena zehatz-mehatz erregistratzea, horrela, jarduketa-prozesu osoa gordeta izango da edozein momentutan esku hartzeko (Gomez, Adroher, Berastegui & Halty, 2022).

2.4. Zelan esku-hartu Haur Hezkuntzan

Haur baten aurkako balizko indarkeria-egoera bat detektatu denean, eskolaren barruan edo kanpoan, hura babesteko eta kaltea konpontzeko jardun behar dute eskolako profesionalek, ahal den neurrian. Ongizate eta babes-ordezkariak zuzendu eta koordinatu behar du, eta antzemandako edozein indarkeria-egoeraren berri eman behar zaio (Oderiz, 2020; Gomez, Adroher, Berastegui & Halty, 2022).

Irakasleen esku-hartzeak, nolnahi ere, haurraren interes gorenaren printzipioa izan behar du oinarri, eta, bereziki, honako printzipio orokor hauek jarraitu behar ditu: diligentzia edo arreta, biktimak entzuna eta informatua izateko duen eskubidea, pribatutasunerako eta intimitaterako eskubidea, enpatia eta babesa, familiarekiko informazioa eta koordinazioa (familia-ingurunetik ez datorrela dirudienean), komunikazioa eta salaketa,

egoera horretan egon daitezkeen beste haur edo heldu batzuekin lan egitea, arreta eta laguntza behar den beste luzatzea edo egin dezakeenarengana bideratzea (Oderiz, 2020; Gomez, Adroher, Berastegui & Halty, 2022).

Karguagatik, lanbideagatik edo jardueragatik haurren zaintza, irakaskuntza edo babesaren esleituta dutenek, legez, betebeharrak kualifikatua dute indarkeria-egoerak jakinarazteko eta salatzeko. Betebeharrak horren bidez, osasun-arriskurik ez edo haurren segurtasuna dakarten indarkeria-egoerak jakinarazi behar zaizkie gizarte-zerbitzu eskudunei eta Fiskaltzari, Segurtasun Indarrei edo agintaritzari judizialari arriskua dakarten indarkeria-egoerak haurraren osasunerako edo segurtasunerako. Babes-ordezkariek egingo dituzte jakinarazpen horiek (Oderiz, 2020; Gomez, Adroher, Berastegui & Halty, 2022).

3. Lanaren helburuak

Jarraian burututako lanaren helburu orokorra eta helburu zehatzak aurkeztuko dira. Lan honen helburu orokorra hau da (HO):

Haur Hezkuntzako etapan haurren babesgabetasuna jasaten ari diren edo jaso duten ikasleei laguntzeko webgune bat sortzea irakasleentzako eta familientzako orientabideak eta materialak eskaintzeko.

Honako hauek dira helburu zehatzak (HZ):

HZ1: Irakasleei zein familiei tresnak ematea haurren babesaren areagotzeko.

HZ2: Gaiaren garrantziaz ohartaraztea eta babesaren alde egiteko estrategiak eskaintzea.

HZ3: Babesgabetasun egoeran dauden haurrei laguntza eskaintzea.

4. Metodologia

Lan hau aurrera eramateko eta helburua erdiesteko, atal honetan jarraitu den metodologia azalduko da. Atala bi azpiataletan banatzen da, lehenengoan datuak jasotzeko jarraitutako metodologia azalduko da eta bigarrean datuak zelan aztertu diren azalduko da.

Helburua erdiesteko, lehenik eta behin, ikerketa bibliografiko sakona egin da dokumentaziorako iturri bibliografiko ezberdinak kontsultatuta. Hasiera batean, lan

honen marko teorikoa (ikus 2. atala) osatzeko erabili da eta gero webgunean eskaintzen den informazioa aberasteko. Honetaz gain, gaian adituak diren profesional bi elkarrizketatu dira, profesionalki haurrak babesteko gakoak prestatzeaz eta emateaz arduratzen direnak eta hezkuntzako profesional desberdinen testigantzak jaso dira. Azkenik, jasotako eta aztertutako materialetan oinarrituta webgune bat sortu da ikasitakoarekin eta dokumentatutakoarekin, babesgabezia dauden haurrei eta inguruko helduei (familia zein irakasleei) laguntzeko xedea duena. Webgunea, hezkuntzako profesionalei eta Haur Hezkuntzako ikasleen familiei zuzenduta dago.

4.1. Datuak jasotzeko metodologia

Azpiatal hau hiru sekziotan banatuta aurkezten da. Lehenengoan adituen elkarrizketez arituko gara, bigarrenean informazio akademikoa zelan jaso eta kudeatu den azalduko da eta hirugarrenean, hezkuntzako profesional desberdinen testigantzez arituko gara.

4.1.1. Adituei elkarrizketak

Esan bezala, lan honetarako bi elkarrizketa egin dira, biak 2022ko abenduan (marko teoriko eta kontzeptuala zehaztu ostean). Elkarrizketak egiteko Gradu Amaierako Lan honetarako beren beregi elkarrizketa-gidoi bat diseinatu da (ikus 1. eranskina). Gidoi horretan bost bloke bereizi dira. (1) Lehenengoan, elkarrizketatuei euren burua aurkezteko eskatu zaie (nor den, non egiten duen lan, duen formakuntza, etab.); (2) bigarrenean, marko teorikoan jorratutako (ikus 2. atala) kontzeptu teorikoez galdetu zaie (babesgabetasunaren definizioa, testuingurua, sailkapena...); (3) hirugarrenean, gaur egungo egoeraz galdetu zaie eta datuak eta kasuak jaso dira; (4) laugarrenean, eskolak bete behar duen paperaz eta funtzioaz jardun da, jakiteko zein den eskolaren eginkizuna eta zehatzago esanda gelako tutorearena, identifikazioari, interbentzioari eta prebentzioari dagokionez; eta (5) bosgarren blokean, irakasle graduatu berriek jakin beharreko aritu gara eta informazio gehiago non jaso daitekeen galdetu zaie (webguneak, materialak, liburuak, hitzaldiak...). Gradu Amaierako Laneko tutorearekin galderak zehaztu eta galderen txantiloia aurrean izanda, profesionalei hitzordua eskatu eta elkarrizketak burutu dira. Elkarrizketak audioan grabatu dira elkarrizketatuen baimenarekin eta datuen babeserako legerari jarraiki (ikus 8. atala) hauek 2. eranskinean transkribaturik agertzen dira (ikus 2. eranskina).

4.1.2. Informazio akademikoa eta iturri bibliografikoak

Beharrezko informazioa eskuratzeko, iturri bibliografiko eta akademiko desberdinak kontsultatu dira (Arrubarrena (2007); Bizkaiko Foru Aldundia (2005); Eusko Jaurlaritza (2020); Goleman (1996); Gomez, Adroher, Berastegui, & Halty (2022); Gonzalez (2002); Hernandez (2017); Horno (2022); Lege Organikoa (2021); Losada & Porto (2019); Macías de la Vega (2017); Martinez & Escorial (2021); Mouesca (2015); Nazio Batuen Erakundea (2015); Oderiz Zubieta (2020); Romeo (2019); Save the Children (2019); UNESCO (1995); UNICEF (2020); etab.). Kontsultatu, irakurri, landu eta antolatutako informazio guztia, online eta liburutegi ezberdinak arakatzen eskuratutako liburu eta testuen bidez lortu da. Horrez gain, aipatutako testuak batez ere, liburuak, aldizkari akademiko eta zientifikoetako artikulak, gida ezberdinak, hitzaldiak, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak eskaintzen dituzten testu ezberdinak, etab. izan dira. Hainbat iturri bibliografiko arakatu ostean eta horien inguruko ikerketa egin eta gero, jasotako informazioa laburbiltzeko *Canva* softwarea eta webgunearen bidez poster bisual batzuk sortu dira, bertan arakatutako guztia islatzeko (ikusi 5.2. azpiatala).

4.1.3. Testigantzak

Esan bezala, lan honetarako hezkuntzan eragina izan dezaketen profesional desberdinei, zehazki 6 profesionali, galdetegi¹ bat erantzuteko eskatu zaie *google forms* plataforma erabilia. Gradu Amaierako Lan honetarako beren beregi diseinatu den galdetegia da, galdetegia guztiz anonimoa izan da eta erantzunak lan honetarako sortu den webgunea hornitzeko eta elikatzeko erabili dira, haurren babesari ikusgarritasuna emateko. Galdetegia, lau blokeetan bereizita dago. (1) Lehenengoan, galdetegia erantzun duten profesionalaren burua aurkezteko eskatu zaie (adina, sexua, lanbidea, ikasketak, lan esperientzia, ...); (2) bigarrenean, haurren babesaren inguruan hitz egiten dugunean burura datorkienaren inguruan galdetu zaie; (3) hirugarrenean, haurren babesaren inguruan hitz egiten dugunean zeren falta edo beharra dagoela uste duten galdetu zaie eta azkenik (4) laugarrenean, haurren babesa kolokan jartzen duen esperientzia bat kontatzea eskatu zaie. Gradu Amaierako Laneko tutorearekin galderak zehaztu eta esteka hezkuntzan diharduten profesional desberdinei helarazi zaie. Erantzunak, *google forms*

¹ <https://forms.gle/ktS5GgK8UXi6ApUE6>

plataformaren bitartez gorde dira, erantzuleen baimenarekin eta datuen babeserako legerari jarraiki (ikus 8. atala) hauek 3. eranskinean transkribaturik agertzen dira (ikus 3. eranskina).

4.2. Datuak prozesatzeko metodologia

Azpiatal hau sekzio bakarrean aurkezten da, webgunearen eraikuntzan fokua jarrita. Izan ere, elkarrizketa ezberdinen bidez eta iturri bibliografiko desberdinak arakatu, ostean, jasotako informazioa sortu den webgunean proiektatu da. Webgunea, hezkuntza testuinguruari ekarpen xumea egiteko helburuarekin egin da. Gaur egun, gure inguruan badira babesgabetasuna pairatzen duten haurrak eta horiei ahalik eta hoberen aurre egiteko tresna sortu nahi izan da. Ikasleak erdigunean protagonistatzat jarri dira uneoro, haien ongizatea eta kalitatezko hezkuntza bermatzeko helburuarekin. Webgunean eskaintzen den informazio guztia irakasle, guraso zein hurren babesean interesa eta ardura duen edonoreentzat bideratuta dago.

4.2.1. Webgunearen eraikuntza

Hurren babesgabeziaren inguruan ikerketa zabala egin ostean, lehenengo webgunearen zirriborroa egin da. Haur Hezkuntza Gradu bigarren mailan, “Informazio eta Komunikazio Teknologia Haur Hezkuntzan” ikasgaiaren proiektuetariko bat, gure lanak islatzeko webgunea *Wix* plataformarekin sortzea izan zen. Hori dela eta, graduan zehar eskuratutako aurretiko ezagutzetatik abiatuz, oraingoan Gradu Amaierako Lanerako ere, *Wix* plataforma erabili da webgunea sortzeko.

Webgunearen egituraren eta antolamenduaren zirriborroa zehaztu ondoren, webguneari forma eman zaio. Webgunea egiteko “Tratu on”eko webgunea² kontsultatu da eta adibidetzat hartu da, estetika eta egitura zaindua duela iritzi eta gero (Tratu on, 2023).

Webgunea, Haur Hezkuntzako etapako hurren babeserako zuzenduta dago. Webgunearen eraikuntzan, atal bakoitza zehaztasunez pentsatua izan da, hau da, atal bakoitzak lanaren marko teorikoarekin bat egiten du. Webgunea sei ataletan banatu da. (1) Lehenengoan, sarrera aurkezten da, hau da, gaian kokatzeko zenbait sekzio daude (aurkezpen txikia, marko teorikoen poster bisual batzuk, bideo batzuk, albisteen atala,

² <https://tratuon.org/>

etab.); (2) bigarreanean, profesional desberdinen testigantzak jaso dira; (3) hirugarreanean, familientzako egokitutako espazioa, gida eta material desberdinekin hornitu da; (4) laugarreanean, irakasleentzako egokitutako espazioa, gida eta materialekin; (5) bosgarreanean, adituen atala (adituei baimena eskatu zaie); eta (6) seigarreanean gehiago jakiteko atala, informazio gehigarriarekin. Webgunea hornitzeko sartutako bideo, albiste zein materialak jatorrizko hizkuntzan agertzen dira, nahiz eta azalpenak euskaraz egon.

5. Emaidza

Atal honetan elkarrizketen, iturri bibliografikoen eta testigantzen emaitzak aurkeztuko dira, hau da, zer jaso eta zer atera den azpiataletako bakoitzetik zehaztuko da eta gainera emaitzarik behinena webgunea bera izanda, aurrerago ere erakutsiko da emaitza gisa.

5.1. Adituei elkarrizketak

Elkarrizketa guztiak 4.1.1. sekzioan adierazi den moduan audio bidez grabatu eta transkribatu dira. Galdera eta transkripzioak 1. eta 2. eranskinetan eskaintzen dira urrenez urren.

5.2. Informazio akademikoa eta iturri bibliografikoak

Jada azaldu den moduan iturri bibliografiakoez ere baliatu gara (Arrubarrena (2007); Bizkaiko Foru Aldundia (2005); Eusko Jaurlaritzza (2020); Goleman (1996); Gomez, Adroher, Berastegui, & Halty (2022); Gonzalez (2002); Hernandez (2017); Horno (2022); Lege Organikoa (2021); Losada & Porto (2019); Macías de la Vega (2017); Martinez & Escorial (2021); Mouesca (2015); Nazio Batuen Erakundea (2015); Oderiz Zubieta (2020); Romeo (2019); Save the Children (2019); UNESCO (1995); UNICEF (2020); etab.) informazio akademikoa osatzeko.

4.1.2 sekzioan aipatu den bezala, hainbat iturri bibliografiko arakatu ostean eta horien inguruko ikerketa egin eta gero, marko teorikoan jasotako informazioa laburbiltzeko *Canva* softwarea eta webgunearen bidez poster bisual batzuk sortu dira, 5.irudian agertzen den bezala, bertan arakatutako guztia islatzeko.

5.3. Testigantzak

Testigantzak jasotzeko lehenengo gaia zelan ulertzen duten eta zer botatzen duten faltan galdetu zaie erantzuleei eta gero ze esperientzia izan duten gaiarekin. Webgunean sei testigantzak eman dira argitara. Horietako bi adibide gisa 6.irudian erakusten dira. 3. eranskinean *google forms* osotik jasotako erantzun guztiak transkribaturik agertzen dira (ikus 3. eranskina).


Esteka honetan kontsulta daiteke: <https://etxebarriairaide.wixsite.com/haurren-babesa/testigantzak>



6. irudia. Webguneako testigantzen atalaren pantaila-irudia.

5.4. Webgunea

Sortutako webgunearen banaketa hobeto azaltzeko, eskema bat egin da, 7. irudian erakusten dena. Webgunea sei ataletan adarkatzen da, atal bakoitzean informazio desberdina dago eta kasu batzuetan azpiatalak ere badaude. Gainera, beharrezkoa den kasuetan irakurleari irakurketa errazteko, zuzenean beste orrialde batera eramaten duten estekak jarri dira.



7. irudia. Webgunearen antolamenduaren eskema.

(1) Lehenengo atalean, webgunearen sarrera dago, webgunearen zergatia eta azalpena irakurri daiteke, haurren babesaren inguruan ari garenean zertaz ari garen azaltzen da, definizioan, prebentzioan, detekzioan eta esku hartzean fokua jarriz. Horrez gain, gaian sakontzeko bideo zein albiste batzuk ere agertzen dira.

(2) Bigarreanean, testigantzak hartzen dute lekua, eremu profesionaleko esperientziak laburki agertzen dira.

(3) Hirugarren eta (4) laugarren sekzioak, familientzako eta irakasleentzako espazioak dira. Bertan, definizioak eta garrantzia aipatzeaz gain, baliabideak ere agertzen dira, zenbait gida eta material proposatzen direlarik.

(5) Hurrengo atalean, adituei eskainitako atala dago, kasu honetan, elkarrizketatuak izan diren bi pertsonen elkarrizketak eman dira argitara. Anonimotasuna mantendu da (ikus 8.atala).

(6) Azkenik, seigarren atalean, gehiago jakiteko webguneak, artikulak, eta abarrekoak. batzen dituen orrialdea dugu.

Webgunearen sarbidea ondorengo estekan aurkitzen da: <https://etxebarriairaide.wixsite.com/haurren-babesa> 8.irudian webgunearen pantaila-irudia erakusten da.



8. irudia. Webgunearen pantaila-irudi bat.


6. Ondorioak

Gradu Amaierako Lan honetan zehar lortutako emaitzak oinarri izanik, ondorio azpimarragarrienak plazaratuko dira ondorioen 6. espazio honetan, egindako aurkikuntza eta etorkizunari begira gauzatu beharreko hobekuntzak azalduz. Lan honek bere soinean ikerketa lana eta irakasleentzako zein familientzako webgunea daramatza jantzirik. Beraz, ondoriorik behinena webgunea bera da, webguneak eskaintzen baitu lanak iraun bitartean jasotako eta sortutako ikaskuntza, ikerketa eta aurkikuntza guztiak. Lan honi esker, gehiago jakin eta sakondu ahal izan dut, gainera hurbiletik adituak ezagutu ditut, gai honetan profesionalak direnak, gidak eta dokumentazioak ikertu eta ezagutu ahal izan ditut eta gaien gehiago trebatu naiz. Lana egin bitartean, etorkizuneko Haur Hezkuntzako irakasle izateari begira, haurren babesaren ezinbesteko eskubide bat dela eta bermatu beharrekoa eta ezinbestekoa dela ikasi dut. UNESCOren hitzak neure eginez, haurren ongizatea gizarte eragile guztiek bermatu beharreko baldintza bat da, oinarrizko giza eskubidea delako (UNESCO, 1995).

Lan honi esker, ekarpen xume baliagarri eta interesgarria egiten ahalegindu naiz, haurren babesaren bere baitan zer den, prebentzio, detekzio zein esku hartzei garrantzia emanda eta horietan arreta berezia jarrita. Gainera, sufritu zein prebentzio lanerako orientabideak, gidak zein material praktikoak proposatu ditut, osotasunean eta sarean lan egin ahal izateko. Beraz, esan dezaket, ikasle, irakasle eta familien testuingurura hurbiltzen ahalegindu naizela eta haurren babesaren garrantzia ikusarazi dudala.

Lan honetarako planteatutako helburua erdietsi dela esango nuke. Izan ere, haurren babesaren inguruan ikerketa bibliografiko sakona egin eta errealitatearen beharrak ahalik eta era egokienean asetzeko, orientabide eta material erabilgarri askotarikoa argitaratu da sortutako webgunean.

Helburua erdiesteaz gain lanaren ondorioak hiru bloke nagusitan sailka daitezke. 9. irudian erakusten diren blokeetan, alegia: (1) formakuntza falta, (2) elkarlanaren garrantzia eta (3) umeei behar duten afektibotasuna.



9. irudia. Gradu Amaierako Lanaren ondorio nagusien sailkapena.

(1) Formakuntza falta dagoela diogu, izan ere, hurren babesaren inguruan galdetzerakoan, ezjakintasun handia dagoela ikusi da galdetegiko erantzunei esker eta profesionalekin izandako harreman eta kontaktuei esker. 2021. urtean argituratutako Lege Organikoan, LOPIVI siglekin ezagutzen dena, bertan formakuntzari berebiziko garrantzia ematen dio. Legean, hurrekin ohiko harremana duten profesionalen hasierako eta etengabeko prestakuntza espezializatua arautzen du (Lege Organikoa, 2021). Formakuntzaz ari garenean ez da bakarrik eskolako profesionalei zuzentzen baizik eta haur batekin kontaktua izan dezakeen edonorekin, hau da, familia ezezik hezkuntzako eragile guztiekin. Horrez gain, autobuseko gidaria, polizia, medikua, etabarrek ere formakuntza izan beharko lukete, kontaktu zuzena baitute hurren egunerokotasunean (Romeo, 2019; Lege Organikoa, 2021).

(2) Elkarlana beti da beharrezkoa baina are gehiago umeen babesaren inguruan hitz egiten dugunean, legean ere honen inguruko arauketa eskatzen da, administrazio publikoen eta pribatuen arteko beharrezko lankidetzaren sortzea ezinbestekoa dela esaten da (Lege Organikoa, 2021). Esperientzia txarrak jasan dituzten hurrek, askotan, hutsean erortzeko sententzia izaten dute. Horregatik, oso garrantzitsua da hurrari eusten dion eta laguntzen dion sare bat antolatzea eta koordinatzea. Kontua da baliabideak konektatzea ez bakarrik hurrarekin (eta haren familiarekin, ahal denean), baita elkarren arteko baliabideak konektatzea ere, informazioaren fluxua eta koordinazioa ahalbidetuz. Horrela, behar dituen laguntza guztiak izateaz gain, hurrak (eta haren familiak) norabide berean hautematen du lana. Baliabide horiek eskolaren barrukoak izan daitezke (adibidez, irakasleak, hezitzaileak, etab.) baina baita kanpokoak ere (hala nola medikuak, aisialdiko eta denbora libreko jardueren arduradunak, etab.) (Romeo, 2021).

(3) Garapen afektiboa, pertsonaren gainerako garapenen oinarria da, afektuak dena inpreginatzen du eta ez du erreferentzia-ereduak ematen, geure egiten dugun munduari begiratzeko modu bat da, harremanen bitartez jasotzen duguna (Hernandez, 2017). Hau da, afektibitatea gizakiok beste pertsona batzuekin harremanak izateko dugun beharrean

bilakatzen da. Horregatik, esku hartzen duen edozein hezkuntza dimentsiok afektibotasuna kontuan hartzeaz gain, oinarria izan behar du. Umeek afektibotasuna behar dute bizitzen hasten diren unetik, izan ere, afektibitatearen bitartez, haurrak behar duen egonkortasun emozionala eta segurtasuna bermatzen du, bai norberarengan bai besteengan (Gonzalez, 2002; Horno, 2004). Jakina, ingurune seguru eta babeslea sortzeko, giltzarrietako bat afektibitatea dela, hau da, ingurune bat ez da inoiz ingurune seguru bat izango, baldin eta hurrekin lan egiten duen jendeak ez baditu afektuz tratatzen, era berean familiei aplikatuta, familia ez da inoiz babeslea izango seme-alabak afektuz tratatzen ez baditu eta lotura afektibotik hazten ez baditu (Horno, 2022).

Arestian esandako guztia kontuan hartuta, lan honi amaiera emateko argi utzi nahiko nuke, ikasleekiko harremanean, haiekiko sentsibiltatea eta errespetua izatea eta erakustea beharrezkoa dela, esan berri dugun moduan, Haur Hezkuntzako etapan afektibotasuna baita arlorik garrantzitsuenetarikoa. Irakaslea, hezkuntzaren profesionala den heinean irakaslearen lana betetzea beharrezkoa da, horrek ikasleak eguneroko ibilbidearen ondoan egotea dakar eta horrek gugandik babesa eta konfiantza sentitzea ekarri behar du. Etorkizunari begira, nire proposamena da, gai hau eskola zein elkarte desberdinekin ezagutarazteko eta ahotsa emateko lan egitea, haurren ongizatea oinarrizko eskubidea dela bermatuz.

Ez nuke lan hau bukatutzat amaitu nahi, azkenekoz aipatu barik zein garrantzitsua den haurren babesaren alde egitea hori baita haienganako errespetua eta haien nortasunaren abiapuntu.

7. Erreferentzia bibliografikoak

- Arruabarrena, I. (2007). *Haurren babesak: eskolaren eginkizuna*. Hemendik berreskuratua: <https://www.navarra.es/NR/rdonlyres/91B76D08-1CD8-47A8-AD52-8D43C07F9FEC/91990/DesproteccionEscuelaEUSK1.pdf>
- Bizkaiko Foru Aldundia. (2019). *Haurrentzako III. Plana. Haurren eta nerabeen babesgabetasun egoeretan arreta emateko*. Hemendik berreskuratua: <https://www.bizkaia.eus/home2/Archivos/DPTO3/Temas/Pdf/III%20PLAN%20DE%20INFANCIA%20FINAL%20DEFINITIVO%20Euskera.pdf?hash=36795940c81255608797d5556d700a466&idioma=EU>
- Bizkaiko Foru Aldundia. (2005). *Babesik gabeko haurrekin esku hartzeko eskuliburua*.
- Eusko Jaurlaritzak. (2020). *Haur eta nerabeenganako indarkeria EAEn. Diagnostikoa, erronkak eta gomendioak (2019)*. Hemendik berreskuratua: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritzak/-/albisteak/2020/haur-eta-nerabeenganako-indarkeria-eaen-diagnostikoa-erronkak-eta-gomendioak-2019/>
- Goleman, D. (1996). *Inteligencia emocional*. Kairós.
- Gomez, B. Adroher, S. Berastegui B. & Halty, A. (2022). *Guía de entorno seguro en contextos de educación no formal*.
- González, E. (2002). *Educación en la afectividad*. Universidad Complutense de Madrid.
- Hernández, J. P. (2017). El desarrollo afectivo según Jean Piaget. *Revista vinculando*.
- Horno, P. (2004). *Educando el afecto: Reflexiones para familias, profesorado, pediatras... GRAO*
- Horno, P. (2022). *Haurren eta nerabeen tratua onak eskolan eta eremu sozioedukatiboan*. [Argitaratu gabeko hitzaldia]
- Lege Organikoa. (2021). *Protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia*. Hemendik berreskuratua: <https://www.boe.es/eli/es/lo/2021/06/04/8/con>
- Losada, A. V. & Porto, M. (2019). *Familia y abuso infantil*. *Revista Neuronum*, 5(2), 7-32.
- Macías de la Vega, S. (2017). *El papel docente en la detección y notificación de situaciones de desprotección infantil*.
- Martinez, C. & Escorial, A. (2021). *Guía sobre la Ley Orgánica de Protección integral a la Infancia y a la Adolescencia frente a la Violencia*.
- Mouesca, J. P. (2015). Prevención del maltrato infantil: función del pediatra: I.a parte: Aspectos generales, evidencia, factores de riesgo, factores protectores y desencadenantes. *Archivos argentinos de pediatría*, 113(6), 558-567.
- Nazio Batuen Erakundea. (2015). *Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda*. NBE.
- Oderiz Zubietta, S. (2020). *Eskola eta haurren babesgabetasuna*. [Gradu Amaierako Lana]
- Romeo, F.J. (2019). *Enseñando a ver las Heridas del alma*. Hemendik berreskuratua: https://www.espiralesci.es/wp-content/uploads/Ver_las_heridas_del_alma_FJ_Romeo_1P.pdf
- Romeo, F.J. (2021). *Tejer una red para sanar las heridas del alma*. Hemendik berreskuratua: https://www.espiralesci.es/wp-content/uploads/Gestion_de_Caso_en_trauma_FJ_Romeo_1P.pdf

Romeo, F.J & Horno, P. (2022). *Ver para proteger. Claves para comprender la violencia contra niños, niñas y adolescentes y para desarrollar medidas de protección eficaces.*

Save the children. (2019). Hemendik berreskuratuta: <https://www.savethechildren.es/>

Tratu on. (2023). <https://tratuon.org/>

UNESCO. (1995). *La Convención sobre los derechos del niño: contribución de la UNESCO.*

Hemendik

berreskuratua:

https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000101215_spa

UNICEF. (2020). *UNICEF resalta la importancia del rol del padre en el cuidado y la crianza de las niñas, niños y adolescentes en tiempos de COVID-19.* Hemendik

berreskuratua: <https://www.unicef.org/colombia/comunicados-prensa/dia-del-padre-2020>

8. Etika profesionala

Lan hau egiteko, etika profesionala eta datuen babesa hartu dira kontuan. Alde batetik, inkestatuei galdetegiaren hasierako mezu baten bidez jakinarazi zaie jasotako datuen pribatutasuna eta anonimotasuna uneoro errespetatuko dela, hain zuzen ere, Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat eginez. Bestalde, elkarrizketatuei egunean bertan eta aurreko posta elektronikoko baten bitartez audioz grabaturiko elkarrizketak izango zirela jakinarazi zitzaizkien, anonimotasunean mantenduko direnak eta ez direnak inon argitaratuko. Horrez gain, grabatuak izateko eta audioa Bilboko Hezkuntza Fakultateko tribunaleko irakasle zein ikasleen aurrean erreproduzitu ahal izateko baimena ematen zuten, edozein unetan errektifikatzeko aukera eskainiz.